





OSASUNAREN INDUSTRIAK ETA MEDTECH



 **pays
Basque
euskal
HERRIA**

COMMUNAUTÉ
D'AGGLOMÉRATION

HIRIGUNE
ELKARGOIA

Ekonomia produktibo, iraunkorra eta orekatua sostengatzeko xedearekin, Euskal Hirigune Elkargoa Garapen Ekonomikorako Eskema anbiziotsu batez hornitu da.

Eskema horrek lurralde osoan ekintza publikoa eramaten du garapen-ahalmen handiko adar historikoetan eta egituratzaileetan bermatzen den garapen ekonomikoari dagokionaz.

Osasun Industriak eta Medtech alorreko bide-orriak osasunaren lekua berrikuntzaren eragile gisa berresten du, eta Euskal Hirigune Elkargoaren osasunaren aldeko ekintza kokatzen du iraunkortasun eta lurralde-orekaren erronken erdian.



6

Retrouvez la Feuille de route
des Industries de la Santé
et Medtech en basque
en ligne sur

communaute-paysbasque.fr

*Osasun-industriak eta
Medtech bide
orria aurki ezazu
communaute-paysbasque.fr
webgunean*



BIOTECH

Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundearen arabera, bioteknologia da organismo bizidunei zientzia eta teknologia aplikatzea, materialak aldatzeko (bizidunak edo ez-bizidunak) ezagutzak, ondasuna eta zerbitzuak ekoizteko gisan. Osasunak eta farmaziak leku nagusia dute bioteknologieta, erremedio biologikoen, txertoen, terapia berritzaile, geniko edo zelularren garapenarekin.

MEDIKUNTZA BALIABIDEA

Osasun produktu oro izan daiteke (bakarrik edo beste batzuekin erabili tresna, gailua, ekipamendua, softwarea, ekaia edo ekoizkina), eritasun, zauri edo ezintasun baten diagnostikorako, prebentziorako, kontrolerako, tratamendurako edo arintzerako.

E-OSASUNA edo OSASUN NUMERIKOA

“E-osasun” terminoak osasunaren zerbitzura diren informazio eta telekomunikazio teknologien aplikazio eremu zabala estaltzen du. Osasun numerikoak azpi-arlo asko barne hartzen ditu, batzuetan Osasun Aginte Gorenak doituak, horien artean nagusiak dira SIS (Osasun Informazio Sistemak), SIH (Ospitaleko Informazio Sistemak), medikuntzako robotika, Big Data / Open Data/Data...

MEDTECH

OMEK (Osasunaren Mundu Erakundea) honela definitzen du Medtech: “osasun arazo bat konpontzeko eta bizi-kalitatea hobetzeko garatu tresna, erremedio, txerto, prozedura eta sistemen bidez antolatu ezagutza eta gaitasunen aplikazioa”. Medtehek biltzen ditu arten ingurumenerako berrikuntza teknologiko guziak: hitzorduak linean hartzeko webgunea izan daiteke, organo artifiziala edo kirurgia-robotak.

ONE HEALTH

One Health (“osasun bakarra”) diziplina anitzeko ikusmolde orokorra da, biziki lotuak eta interdependentekak diren pertsonen, animalien, landareen eta ekosistemen osasuna molde iraunkorrean orekatzeko eta optimizatzeke. One Health hainbat sektoretako elkarlanean bermatzen da osasun mehatxuei buru egiteko animalien, jendeen eta ingurumenaren arteko interfazeetan.

HIZTEGIA

2019az geroztik, Euskal Hirigune Elkargoak osasuna ekonomia produktiboaren zutabe gisa identifikatu zuen. Osasuna gizartearen erronka handia da, COVIDaren larrialdiak areagotua. Gure jendarteak erronka frankori behar dio ihardetsi, hala nola eritasun kronikoei, infekzio-eritasun berriei edo ekai kutsagarriei lotu eritasunei, mediku apaltzeari, teknologia berrien zalutzeari, baliabideen xuhurtzeari, One Health ekimenaren erronkari, hots, denendako osasun globala bermatzeari.

2021az geroztik, Euskal Hirigune Elkargoa lanean dabil osasun mailako ekonomia estrategia definitzeko eta “Osasun Industrien eta Medtech” goi mailako adarraren bide-orria idazteko.

2023-2026ko bide-orri hori lurraldeko osasuna egiten duten eragileekin eta partaideekin eraman kontsulten eta eztabaiden fruitua da. Gobernamentuaren “France Santé 2030” planaren eta Akitania Berriak eraman ekintzen osagarri da. Bide-orri horren bidez, gure xedea da osasunak leku handiagoa har dezan lurraldearen garapen ekonomiko orekatuan eta iraunkorrean, baita ere berrikuntzaren bektore gisa duen eginkizuna berrestea.

Sylvie Durruty, Ekonomiaren eta Berrikuntzaren ardura duen lehendakariordea

EDITORIALA

OSASUNAREN INDUSTRIAK ETA MEDTECH ADARRAREN ZENBAKIAK IPAR EUSKAL HERRIAN

Osasunaren industriak eta Medtech adarrak erro sendoak ditu Ipar Euskal Herrian osasun establimendu franko eta industria eragile franko baita. Osasun industriak lurralde osoan daude, bereziki itsasbazterrean eta Kanbo inguruan, han baitaude historikoki arta-etxeak eta berreskurapen-etxeak, baita ere bainuetxea.

Ipar Euskal Herriko osasun
industriaren eta Medtech adarrean
bada

5 484

establimendu, enpresa
eta lanbide liberal,
eta haietan:

9

egitura 250
langile baino
gehiagorekin

90

enpresa "produktibo"
(Osasunaren industriak
eta teknologiak)

28

arta-etxe

2 679

profesional beren
kontu ari direnak
mediku artak egiten

118

farmazia

2

analisi
laborategi sare

Osasunaren industriak
eta Medtech
adarrean

23 000

enplegu bada,
horien artean

1 800

enpresa "produktiboetan"

hots,

%18

Ipar Euskal
Herriko enplegu
pribatuaren eta
publikoaren

Urtean

1,2

miliar euroko
negozio
zenbatekoa
egiten du.


Iturria: Euskal Hirigune Elkargoko Data Eko –
Osasunaren Eskualdeko Agentzia– Osasunaren Tokiko Hitzarmena –
Lurraldeko 2021eko diagnostikoa – Ipar Euskal Herriko eta Baionako MIGaren ikerketa

OSASUN INDUSTRIAK eta medTECH ADARRAREN ABANTAILAK

IPAR EUSKAL HERRIAN

Garapen ekonomikoaren zutabea eta berrikuntza bektorea

Osasun Industriak eta Medtech adarra Ipar Euskal Herriaren garapen ekonomikoaren eta sozialaren funtsezko osagaia da. Osasuna jendartean eragin handiko aktibitatea sortzeko motorra da eta balio erantsia handia du; berrikuntzako eta ikerkuntza eta garapeneko zutabea da. Industria gaitasunen eta partaidetza berritzaileen garapenean parte hartzen du. Berezitasun batzuei esker bereizten da, lurraldearentzat abantaila lehiakorrek direnak.



Lurraldeko ekosistema aberatsa eta aniztuna

Ipar Euskal Herriko osasunaren lurralde-ekosisteman eragile mota desberdin franko bada bereziki Medtechean —lurraldean historikoki egituratzailea den sektorea— eta farmaziako industrian —tokian erabakiak har ditzakeen enpresa ttipi eta ertainak baitaude—. Ipar Euskal Herrian, gainera, osasun numerikoaren sektorea azkarki garatzen ari da, bereziki data-ri esker.

Nazioarteari buruz begira den ekonomia

Aspaldian Ipar Euskal Herrian kokatuak diren enpresa guztiak Europako eta nazioarteko merkatuei buruz begira daude.

Adibidez, Ipar Euskal Herriko farmazia laborategi nagusiak Ekialdeko Europara, Afrikara eta Asiara esportatzen du. Halaber, mediku-baliabide fabrikatzaileek fakturazio gehiena atzerrian egiten duten eta nazioarteko filialak badituzte.

Berrikuntza eta ikerketa dinamikak

Berrikuntza Osasunaren osagai bazterrezina da. Lurraldean ez da oraino ikerketa laborategirik edo inkubagailurik, ez eta unibertsitate-ospitalerik, baina bada living-lab pribatu bat, ikerketa kliniko laborategiak eta Berrikuntza eta Ikerketa Zuzendaritza bat Euskal Kostaldeko ospitalean, eta horiek osasun arloko jarduera ekonomiko berritzaileen garapenean parte hartzen dute. Osasungintzako industrialariet berrikuntzak egiteko eta produktu eta zerbitzu berriak sortzeko gaitasun handia dute beren barne ikerketa eta Garapen talde ugari eta ezagutuei esker, nazioarteko merkatuetan garatzen laguntzen baitute. Ikerketa eta berrikuntza dinamika hori ekoizpen iraunkorraren alorrean ere dago, lurraldeko eragileentzat kezka handia duen gaia.


Azkenik, osasuna berrikuntza sozialarekin uztartzen da, ekimenak baitaude, hala nola, osasunerako hirugarren tokien (Angelun eta laster Ipar Euskal Herri barnealdean) sortzea, edo Goxa Leku etxearen sortzea, onkologian laguntza-artak emateko Frantziako elkarte bakarra.

OSASUNAREN INDUSTRIAK ETA MEDTECH ADARRA LURRALDEKO ESTRATEGIA EKONOMIKOAN


2019an bozkatu zuen Garapen Ekonomikorako Eskeman (GEE), Euskal Hirigune Elkargoak Osasunaren Industriak eta Medtech adarra identifikatu du lurralderako zortzi jarduera estrategikoetarik bat bezala. Eskema horren bidez helburua da adar bakoitzeko hurbilpen bat egitea, zortzi ekoizpen adarrak lagunduz osagarritasun eta hibridazio helburuarekin, eta enpresa ekimen eta proiektuak laguntzeko helburuarekin.

Osasunaren Industriak eta Medtech adarraren bide-orriak desmartxa hori segitzen du ekintza zehatzak eramanaz adarraren garapen baldintzak bermatzeko eta eragile horiek tokiko ekonomian finkatzeko molde iraunkorren. Euskal Hirigune Elkargoaren helburua da proiektu produktiboak laguntzea Osasun Industriak eta bitarteko jarduerak baita ere Medtech (osasun numerikoa barne) xedetzat ukanez.

Arten eta zerbitzuen adarrak ez dira zuzenki bide-orri horretan tratatuak eta arreta berezia badute Osasunaren Tokiko Hitzarmenean (OTH).



euskAL HIRIGUNE eLKARGOAREN JARRERA



OSASUNAREN
INDUSTRIAK ETA
TEKNOLOGIAK

BITARTEKO
JARDUERAK

Biotech /
Farmazia
laborategiak

MedTech,
Osasun
Numerikoa
barne

Osagaien
ekoizleak
eta beste

Euskal Hirigune
Elkargoaren politika
ekonomikoaren xedearen
parte dira

ARTAK
ETA ZERBITZUAK

Arta edota
harrera
establimendu
publikoak eta
pribatuak

Ordaintzaileak
(Mutualitateak,
gizarte
segurantzak)

Osasun
zerbitzuak
(garraioak,
medikuak,
erizainak,
laborategiak...)

esperimentazio
potentziala dute
lurralderako.

OSASUN INDUSTRIAK ETA MEDTECH ADARRERAKO EKINTZA PLANA

“Osasun Industriak eta Medtech” adarrerako bide-orriak lurraldeko osasunaren ekosistemaren egituratzea eta ikusgarritasuna laguntzea du xede, berrikuntzan bermatuz trantsizioaren erronken aitzinean, nazioarteko garapenean edo formakuntza eskaintzaren hedapenean.


1. XEDEA

Osasun Industriak eta Medtech adarreko enpresak LAGUNTZEA ETA SOSTENGATZEA

Bide-orriaren bidez, Euskal Hirigune Elkargoak nahi du Osasun Industriak eta Medtech adarraren garapenean parte hartu, bereziki ingurumen trantsizioaren garapena lagunduz eta nazioarteko hedapena erraztuz.

Eramateko ekintzak:

- Enpresen bakarkako eta taldekako **laguntza areagotzea**, “**osasun auzoaldeak**” antolatzea Ipar Euskal Herrian eta **mugaz gaindiko sarea** erraztea;
- Enpresak eko-diseinuari eta eko-berrikuntzari sentsibilizatzea eta formatzea eta, eskualdeko **LOOP osasun programan** parte hartzea osasun industriren ingurumen trantsizioaren alde.
- **Enpresen presentzia sustatzea** nazioarteko eta nazioko azoketan eta **partaidetzak eraikitzea sektoreko eragile nagusiekin**.



2. XEDEA

Adarraren erakargarritasuna garatzea

Osasun Industriak eta Medtech adarraren garapena partaideen puntako esperientzian eta engaiamenduan bermatzen da. Horregatik, Euskal Hirigune Elkargoa engeiatzen da goi mailako adarraren egituratzera eta sustatzera, eta talentu berrien hartzeko parada ematera.

Eramateko ekintzak:

- **Adarra animatzea eta enpresak federatzea, arrakastak sustatzea eta “Osasun Industriak eta Medtech” goi mailako adarra ezagutaraztea.**
- **Enpleguaren garapena erraztea eta biharko lanbide eta bilakaerak ezagutaraztea, Industria Lurraldea desmartzarekin partaidetzan.**

3. XEDEA

Teknopoloko adarraren egituraketa laguntzea

Euskal Hirigune Elkargoak enpresa berritzaileak laguntzeko asmoa du, baita ere lankidetzak esperimendua eta hibridazioa garatzeko asmoa, lurraldeko ikerketa gaitasunak sendotzeko asmoa eta formakuntza eskaintza handia proposatzeko asmoa.

Eramateko ekintzak:

- **Enpresa mintegi bat garatzea, azeleragailu baten bultzatzea, enpresa berritzaileak laguntzea** inkubazio eta abiatze baliabideen lorpena erraztuz eta eskualdeko SIRENA startup programarako sarbidea erraztuz;
- **Lankidetzak eta hibridazioa sustatzea** startupen eta enpresen artean, **berrikuntza ireki (open innovation) ekitaldiak antolatzea, esperimendua bultzatzea** eta Health Lab bat obratzea eta animatzea lurraldeko enpresendako eta eragileendako (laborategia, osasun establimenduak...);
- Oinarritzko ikerketa, ikerketa aplikatua eta berrikuntza bultzatzea osasun establimenduekin eta establimenduetan eta ikerketa laborategiekin eta laborategietan;
- **Lurraldeko formakuntza eskaintza osatzea, gogoeta tailerrak antolatzea** (zein osasun formakuntza etorkizunerako?).

LURRALDEKO ERAGILEAK



TECHNOFLEX

Berrikuntza farmazia industriaren zerbitzura

Technoflex Europako liderra da poltsa malguak eta mediku-baliabideak diseinatzeko eta ekoizteko. Enpresak farmazia laborategi handienak laguntzen ditu 1972az geroztik. Zeuden paketatzeei hobekuntza eta berrikuntza franko egin ondoan osasuneko langileek produktu injektagarriak errazkiago erabiltzeko, Technoflex enpresak bere gaitasun guziak ikerketa terapeutikoaren eta paketatze berritzaile diseinuaren arteko aliantzaren zerbitzura ezarri ditu biharko tratamenduak sortzeko (bioterapiak, terapia zelularra...).

Technoflex enpresak 275 pertsona baino gehiago enplegatzen ditu Bidarteko gunean, ISO 7 eta ISO 8 ziurtagiria duten 4 000 m²ko gela zurietan. Enpresak urtean 100 milioi poltsa ekoizten ditu eta 500 milioi konektore, eta aldi berean lerkuntza eta Garapen taldearekin biharko poltsak eta konektoreak asmatzen ditu, aplikazio terapeutiko guzien erabilpen zehaztapenei ihardesten dietenak.

LABORATOIRE RENAUDIN


Etengabe garatzen ari den familiako farmazia laborategi independentea

1946az geroztik, Renaudin laborategiak erremedio-produktu injektagarriak ekoizten ditu Ipar Euskal Herrian, bereziki larrialdi, arta intentsibo eta erreanimazio zerbitzuetarako. Frantziako kasik ospitale guzietan daude Renaudin produktuak, eta 100 herrialdetara esportatuak dira, Ameriketako Estatu Batuetara barne. Itsasun plantatuak dira 1993az geroztik, eta 250 bat kolaboratzaile baditu, eta etengabe langile berriak enplegatzen ditu garapena laguntzeko.

BIOLUZ LABORATEGIA

Balore kooperatibo emankorrak

Badu 40 urte baino gehiago Bioluz laborategi independenteak soluzio injektagarrietarako poltsak betetzen, esterilizatzen eta paketatzen dituela. Hiru motako produktuak garatzen ditu bere izenean (jendeendako eta animalientzako erremedioak, mediku-baliabideak), eta serie ttipi eta ertaineko ekoizpenak beste enpresendako. 2013an, enpresa SCOP moldean (kooperatiba) hartu zuten langileek, gaitasunak, trebetasunak eta enpleguak tokian atxikitzeko asmoz. Indar kolektibo horiek 2020an sarizatuak izan ziren Akitania Berriko Ekonomia saria lortu baitzuten SCOParen hazkunde azkarragatik eta egin inbestimenduengatik. Jarduera osoa, hots, ekoizpena, kontrola eta logistika jarduerak Donibane Lohizunen kokatuak dira.



euskal HIRIGUNE ELKARGOAREN PROIEKTU HANDIAK

Euskal Hirigune Elkargoak, bere bide-orriaren helburuak eta ekintzak betetzeaz gain, jadanik proiektu egituratzaileak abian ezarri ditu lurraldeko “Osasun Industriak eta Medtech” adarra egituratzeko eta sostengatzeko. Begi ukaldi bat haietarik biri.

Ikerketa jarduerak Iker Herrian

Ekonomia Mistoko Cre@ticité Enpresak eramaten du, eta Izarbel teknologia gunean kokatua den osasunari lotu auzoalde berriko lehenbiziko eraikina da. Eraikinean ikerketa talde bat baino gehiago hartzen ahalko dira:

- biologia zelularreko eta immunohematologiako ikerketak egiteko, zelula bakarraren mailan odolaren ekoizpena ulertzeko.
- diziplinarteko biologia-ikerketa garatzeko, ikerketa praktikak aldatzeko eta epistemologia eta zientzia-azterketa tresnak erabiltzeko.


EZAUPIDEAK

Proiektuaren hastapena: 2024

Obren kostua: 3,2 M€

Finantzatzailea: Euskal Hirigune Elkargoa

Partaidea: Akitania Berria eskualdea



MedTech enpresa mintegia


Euskal Hirigune Elkargoa enpresa mintegi bat sortzen ari da Medtech alorrean, eta bereziki mediku-baliabideen alorrean, proiektu berritzaileak eramaten dituztenak laguntzeko. Mintegiak enpresa gazteak lagunduko ditu ekoizpen baliabide partekatuak erabili ahal izateko, eta beren proiektuen garapen-fase inportanteetan laguntza eskainiko du. Ekipamendu horrek ikerketako eragileen eta enpresen saretzeko balioko ere du, lankidetzak errazteko eta ikerketa lanak garatzeko lurraldean.

EZAUPIDEAK

Proiektuaren hastapena: 2024

Obren kostua: 600 k€

Finantzatzailea: Euskal Hirigune Elkargoa








Osasun Industriak eta Medtech adarra etengabe garatzen ari da lurraldean. Ekosistema berritzaile horren federatzeko eta plantatzeko edo garatzeko baldintza onak eskaintzeko, Euskal Hirigune Elkargoak ekonomia-lur publikoaren sortzeko eta antolatzeko eskumena enpresa produktiboen zerbitzura ezartzen du.

Jadanik zenbait obratze eta proiektu eman ditu, hala nola Onkologia zentroaren plantatzea Baionan, Osasun auzoaldearen proiektua eta Ekonomia Mistoko Cre@ticit  Enpresak MedTech eraikinaren eraikitzea, Sophia Genetics errezibitzeko. GHT-CHCB taldeak eraman proiektu egituratzaileak aiantzi gabe: gune logistikoaren lekuz aldatzea, medikuntza nuklearraren alorrean prebentzio eta tratamendu gune baten sortzea. Euskal Hirigune Elkargoak ekonomiarako lur-funtsak ukanen ditu Kanboko herrian, osasunaren lurralde estrategikoan eta historikoan, eta horrek adarreko enpresak plantatzeko parada emanen luke.



Euskal Hirigune Elkargoa
Garapen Ekonomikoaren Zuzendaritza
deveco@communaute-paysbasque.fr





pays
Basque
euskal
herria

COMMUNAUTÉ
D'AGGLOMÉRATION
—
HIRIGUNE
ELKARGOA



6

